## ENPRESAK SORTU ETA GARATZEKO PROZESUA SUSTATZEKO PROGRAMA

# III. Eranskina: EMEKIN

**2024KO DEIALDIA**

# EMAKUME EKINTZAILEA: KUDEAKETA GIDA

## ESKAERA ETA ZURIKETA

**Informazio hau arretaz irakurri eta adierazitako jarraibideak bete EMEKIN proiektuen kudeaketa zuzena egiteko.**

**Zalantzarik izanez gero edo argibideren bat behar izanez gero, jar zaitez harremanetan gure zerbitzuarekin, helbide honetan:**

**sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus**

## EMEKIN PROGRAMA

EMEKIN negozio ideia bat duten emakumeei zuzendutako programa bat da. Xedea du Gipuzkoako lurralde historikoan enplegua sortzea, emakumeek sustatutako enpresa proiektuak bultzatuz.

Programa hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak sustatu eta finantzatzen du, eta, programa garatzeko, aholkularitza–zerbitzuak ematen dituzten entitateen sare bat du programak. Aldez aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak homologatu ditu entitate horiek.

Enpresa sorkuntza prozesuan hiru urratsetan oinarritzen da EMEKINek emandako Laguntza.

### Hasierako orientazioa

Emakume ekintzaileei egiten zaie harrera elkarrizketa pertsonal baten bidez, eta beren negozio ideietan funtsezkoak diren elementuekin lotutako orientazioa ematen zaie. Proiektua balioesten da eta **Emekin Programa**ra gaineratu ala ez erabakitzen da.

Emakumea programaren onuradun modura aitortzen bada eta enpresa ideian laguntza ematea erabakitzen baldin bada, ekintzailea bideratuko da Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua ekimen honetarako berariaz homologatutako edozein entitatera, beren Enpresa Proiektuaren garapena has dezan.

Halaber, Ekintzailetzarako Balioen tailerrean parte hartzeko deialdia luzatuko zaio, non:

- Esperientziak partekatuko dituen EMEKIN Programaren barnean ekiten ari diren beste emakume batzuekin.
- Eskarmentu handiko ekintzaile baten esperientzia ezagutu eta galderak egiteko aukera izango du.
- Ekintzailetza prozesu baten zailtasunak aurreikusi eta gainditzea ahalbidetuko dioten tresna dinamikoak landuko dituen.

### BIDERAGARRITASUN-PLANA

Enpresa sortzeko proiektu bat duten eta EMEKIN programan parte hartu nahi duten emakumeek **entitate homologatuetako** bat hautatu eta harekin harremanetan jarri beharko dute, “BIDERAGARRITASUN–PLANAREN” aholkularitza–zerbitzua emateko, beren enpresa–proiektuari buruzko ezagutza eta segurtasun handiagoko erabakia hartzeko argudio nahikoak izan ditzaten.

Enpresa sortzeko aholkularitza zerbitzuaren emateak (Bideragarritasun–plana) – zerbitzu bakoitzeko gehienez 25 orduko dedikazioa aurreikusten du.

### LAGUNTZA ETA TUTORETZA

Bideragarritasun–plana garatu ondoren jarduerari alta ematen dioten proiektuek (enpresa sortzea) EMEKIN Programaren laguntza jasotzen jarraituko dute, eta Laguntze– eta Tutoretza–fasean sartuko dira.

Zerbitzua emateak honako eremu hauek har ditzake:

– Kontabilitateko, liburuak edukitzeko, aholkularitza fiskaleko eta laneko jardueretan laguntzea.

- Enpresa–zuzendaritza eta kudeaketari buruzko aholkularitza.

- Jarduera juridikoak (jabetza intelektuala barne) eta aholkularitza DBLOn.

- Merkaturatzea, marketina eta komunikazioa: estrategiak, logotipoaren eta irudi korporatiboaren diseinua eta oinarrizko papergintza; diseinua, errotuluak eta katalogoak; publizitate–kanpainen diseinua (merkaturatzea).

- Interneten posizionatzea.

- Merkatu–azterketak.

- Iraunkortasuna eta ingurumena eta ekonomia zirkularra.

Enpresa sortzeko aholkularitza zerbitzuaren emateak (Laguntza eta Tutoretza) – zerbitzu bakoitzeko gehienez 25 orduko dedikazioa aurreikusten du.

- Urteko deialadian eskaera ondoko aplikatiboan egingo da:

http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa

- **EMAKUME EKINTZAILEEK (entitate homologatuaren laguntzarekin)**, ondokoa egin beharko dute:

  - **Eskabidea** bete eta dokumentuak erantsi.
  - Proiektua justifikatzea eta eskatutako dokumentuak eranstea.

## LAGUNTZEN IZAERA

Laguntzak GAUZAZKO LAGUNTZATZAT hartuko dira, eta enpresa sortzeko prozesuan laguntza jasotzeko eskubidea emango diote onuradunari.

**Gauzazko laguntzak** direnez:

➢ Laguntzaren pertsona edo entitate onuradunek ez dute kobratzeko eskubiderik, eta ez dute diru–kopururik jasoko.

➢ Entitate homologatuek, zerbitzuak ematen amaitu ondoren, emandako zerbitzuaren faktura aurkeztuko diote zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiari. Faktura hori kalkulatzeko, jarduketa–memorian kuantifikatutako jarduerak eta araudi erregulatzailean aurreikusitako moduluak hartuko dira oinarri.

# EGUTEGIA: BETE BEHARREKO EPEAK

| BIDERAGARRITASUN PLANA | | | |
|---|---|---|---|
| | ESKAERA | JARDUERAK GAUZATZEKO EPEA | JUSTIFIKAZIOA |
| 2024ko urtarilaren 1etik ekainaren 30era bitartean hasitako proiektuak | 2024-07-11ko 13:00ak arte | Gauzatzeko epea 2024ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2024ko irailaren 30ean amaituko da | 2024-09-30 |
| 2024ko uztailaren 1etik azaroaren 30era bitarteb¡tartean hasitako proiektuak | 2024-12-10eko 13:00ak arte | Gauzatzeko epea 2024ko uztailaren 1ean hasiko da eta 2025eko martxoaren 31n amaituko da. | 2025-04-07 |

# ENPRESAK SORTU ETA GARATZEKO PROZESUA SUSTATZEKO PROGRAMA
# III. Eranskina: EMEKIN – BIDEGARRITASUN PLANA

## EDUKIA

- **ATALA I: APLIKAZIO INFORMATIKORAKO SARBIDEA ETA BIDEGARRITASUN PLANA ESKAERA.**

1. Eskaera egiteko jarraitu beharreko urratsak.
2. IKASEKIN aplikazio infomatikorako sarbidea.
3. Proiektuaren eskaera.

- **ATALA II: PROIEKTUAREN ZURIKETA - BIDEGARRITASUN PLANA.**

1. Zuriketa egiteko jarraitu beharreko urratsak.
2. Proiektuaren zuriketa.
3. Egitasmoaren publizitatea.

## ATALA I: APLIKAZIO INFORMATIKORAKO SARBIDEA ETA ESKAERA.
## *PARTE I: ACCESO AL APLICATIVO INFORMATICO Y SOLICITUD.*

## 1. ESKAERA EGITEKO JARRAITU BEHARREKO URRATSAK.

| | |
|---|---|
| ① | **APLIKATIBOKO** SARBIDE–**PASAHITZAK ESKATU** (aplikatibora **lehenengo aldiz** sartzen zarenean **soilik**) ***http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa*** |
| ② | **JARDUETARAKO SARBIDEA ESKATU**: EMEKIN–Bideragarritasun-plana. |
| ③ | EMAKUME EKINTZAILEAREN **DATUAK OSATU**. |
| ④ | PROIEKTUAREN **ESKAERARI ALTA** EMAN. |
| ⑤ | ESKABIDEAREN **ATAL GUZTIAK OSATU ETA** ETA **DOKUMENTUAK ERANTSI**. |
| ⑥ | ESKAERA **BIDALI**. |

## 2. IKASEKIN APLIKAZIO INFORMATIKORA SARBIDEA.

Emakume ekintzaileak, administrazio eskaera egin aurretik, **webera sartzeko eskaera eta jarduketara sartzeko eskaera** egin beharko ditu

Horretarako**:**

### 1. APLIKATIBOKO SARBIDE–PASAHITZAK ESKATU (1. URRATSA).

**Aukeratu: ESKABIDE ESKAERA.**




Eskabide mota markatu: **AUTOENPLEGUA**




– Web aplikazioaren bidez emakumearen identifikazio eskatutako datuak bete.



– Organo kudeatzaileak EMEKIN programaren onuraduna dela egiaztatu ondoren, webgunera sartzeko gakoak emango zaizkio emakume ekintzaileari, dagokion eskaera egin ahal izan dezan **"EMEKIN – BIDERAGARRITASUN – PLANA**" jarduketaren esparruan.

## 2. DIRUZ LAGUNGARRIA DEN JARDUERARA SARBIDEA ESKATU: EMEKIN–Bideragarritasun – plana (2. URRATSA).




## 3. EMAKUME EKINTZAILEAREN DATUAK OSATU (3. URRATSA).



Horretarako, emakume ekintzaileak programan zerbitzuak ematen dituen entitate homologatu bat hautatu beharko du.

(Ikus homologatutako entitateen zerrenda)

# 3. PROIEKTUAREN ESKAERA.

## 1. PROIEKTUAREN ESKAERARI ALTA EMAN (4. URRATSA).




## 2. ESKABIDEAREN ATAL GUZTIAK OSATU ETA ETA DOKUMENTUAK ERANTSI (5. URRATSA).

**Emakume ekintzaileak** egin beharrekoa:

2.1.– Eskatutako informazioa bete:

– Eskatzailearen datuak, proiektuaren datuak eta partaideak (Talde sustatzailea eta entitate homologatua).




2.2.– Ondorengo dokumentuak erantsi:

1. Urteko administrazio eskaera.
2. Ardurapeko adierazpena.
3. Ekintzailearen NAN kopia.

## 3. ESKAERA BIDALI (6. URRATSA).

Eskaera bidali aurretik, mesedez egiaztatu eskatutako informazioa eta dokumentazio guztia bete eta erantsi duzula.

**Proiektuaren ESKAERAren izapidetzea, BIDALI aukera hautatuz egiten da.**



# ATALA II: PROIEKTUEN ZURIKETA – BIDERAGARRITASUN – PLANA.

## *PARTE II: JUSTIFICACIÓN DE PROYECTOS – PLAN DE VIABILIDAD.*

## 1. ZURIKETA EGITEKO JARRAITU BEHARREKO URRATSAK

| | |
|---|---|
| ① | ZURE GAKOEKIN SARTU APLIKATIBOAN: *http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa* |
| ② | **“NIRE PROIEKTUAK”** AUKERATU.<br>**JARDUERA:** EMEKIN–BIDERAGARRITASUN-PLANA.<br>**EGOERA:** ONARTUTA. |
| ③ | **EGIN KLIK:** “AUKERAK” eta aukeratu “PROIEKTUA IKUSI”. |
| ④ | **AUKERATU:** “AMAIERAKO ZIURTAGIRIA”. |
| ⑤ | ZURIKETAREN **ATAL GUZTIAK OSATU ETA** ETA **DOKUMENTUAK ERANTSI**. |
| ⑥ | ZURIKETA **BIDALI**. |

## 2. PROIEKTUAREN AMAIERAREN ZURIKETA.

**Zuriketa hori betetzeko, hautatutako entitate homologatuaren laguntza izango du emakume ekintzaileak.**

Horretarako:

1. **(5. URRATSA)** Ikasekin aplikazioko **AMAIERAKO TXOSTENEAN** eskatutako informazioa beteko da:

-Amaierako ziurtagiriaren txostena.
-Partaideak:
- Talde ekintzailea.
- Entitate homologatua.
- Zerbitzua eman duen entitate homologatuko pertsonaren izen-abizenak.

**Honako dokumentu hauek erantsiko dira:**

- Dok–1: EGITASMOAREN AMAIERA EGIAZTATZEA.
- Dok–2: BESTELAKO LAGUNTZEN AITORPENA.
- Dok–3: Zerbitzuan emandako ORDUEN DESKARGUA: Bideragarritasun-Plana.
- BIDERAGARRITASUN- PLANA dokumentua erantsiko da.

## 1. (6. URRATSA) Proiektuaren amaieraren zuriketa bidali.

Amaiera ziurtagiria bidali aurretik, mesedez egiaztatu eskatutako informazioa eta dokumentazio guztia bete eta erantsi duzula.

**Proiektuaren AMAIERA ZIURTAGIRIAren izapidetzea, <u>AMAIERAKO ZIURTAGIRIA BIDALI</u> aukera hautatuz egiten da.**







Proiektuaren **Fasea, Amaiera Ziurtagiria BIDALITA**ra aldatuko da.




## 3. EGITASMOAREN PUBLIZITATEA.

Pertsona onuradunek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzazioari publizitate egokia eman beharko dute, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzazio publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenen bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.

# ENPRESAK SORTU ETA GARATZEKO PROZESUA SUSTATZEKO PROGRAMA
# III. Eranskina: EMEKIN – LAGUNTZA ETA TUTORETZA

## 2024KO DEIALDIA

# EMAKUME EKINTZAILEAK: KUDEAKETA GIDA

# ESKAERA ETA ZURIKETA

**Informazio hau arretaz irakurri eta adierazitako jarraibideak bete EMEKIN Laguntza eta Tutoretza proiektuen kudeaketa zuzena egiteko.**

**Zalantzarik izanez gero edo argibideren bat behar izanez gero, jar zaitez harremanetan gure zerbitzuarekin, helbide honetan:**

**sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus**

# 2024. URTEKO DEIALDIA

**http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa**

- Urteko deialadian eskaera ondoko aplikatiboan egingo da:

http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa

- **EMAKUME EKINTZAILEEK (entitate homologatuaren laguntzarekin)**, ondokoa egin beharko dute:

  – **Eskabidea** bete eta dokumentuak erantsi.
  – Proiektua justifikatzea eta eskatutako dokumentuak eranstea.

## LAGUNTZEN IZAERA

Laguntzak GAUZAZKO LAGUNTZATZAT hartuko dira, eta enpresa sortzeko prozesuan laguntza jasotzeko eskubidea emango diote onuradunari.

**Gauzazko laguntzak** direnez:

- Laguntzaren pertsona edo entitate onuradunek ez dute kobratzeko eskubiderik, eta ez dute diru–kopururik jasoko.

- Entitate homologatuek, zerbitzuak ematen amaitu ondoren, emandako zerbitzuaren faktura aurkeztuko diote zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiari. Faktura hori kalkulatzeko, jarduketa–memorian kuantifikatutako jarduerak eta araudi erregulatzailean aurreikusitako moduluak hartuko dira oinarri.

## EGUTEGIA: BETE BEHARREKO EPEAK

| LAGUNTZA ETA TUTORETZA | | | |
|---|---|---|---|
| | ESKAERA | JARDUERAK GAUZATZEKO EPEA | JUSTIFIKAZIOA |
| 2023ko abenduaren 1etik 2024ko otsailaren 29ra arte EJZn alta emandako enpresak | 2024/07/11ko 13:00ak arte | Gauzatzeko epea 2023ko abenduaren 1ean hasiko da eta 2024ko irailaren 30ean amaituko da | 2024/09/30 |
| ESKAERA (Dirulaguntza-eskaera aurkezten duen momentuan EJZn alta eman zutenetik 5 hilabete baino gehiago igaro ez direnak) | | | |
| | ESKAERA | JARDUERAK GAUZATZEKO EPEA | JUSTIFIKAZIOA |
| 2024ko martxoaren 1etik azaroaren 30era arte EJZn alta emandako enpresak | 2024/12/10eko 13:00ak arte | Gauzatzeko epea 2024k martxoaren 1ean hasiko da eta 2025eko apirilaren 30ean amaituko da. | 2025/04/30 |

# EDUKIA

- **ATALA I: EMEKIN LAGUNTZA ETA TUTORETZA JARDUERARAKO SARBIDEA ETA PROIEKTUAREN ESKAERA.**

1. Eskaera egiteko jarraitu beharreko urratsak.
2. IKASEKIN aplikazioan Jarduerarako sarbidea.
3. Proiektuaren eskaera.

- **ATALA II: PROIEKTUAREN ZURIKETA – LAGUNTZA ETA TUTORETZA.**

1. Zuriketa egiteko jarraitu beharreko urratsak.
2. Proiektuaren zuriketa.
3. Egitasmoaren publizitatea.

# ATALA I: EMEKIN: LAGUNTZA ETA TUTORETZA JARDUERARAKO SARBIDEA ETA PROIEKTUAREN ESKAERA.

## 1. ESKAERA EGITEKO JARRAITU BEHARREKO URRATSAK.

| | |
|---|---|
| ① | **JARDUERARAKO SARBIDEA ESKATU**: EMEKIN–Laguntza eta Tutoretza. ***http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa*** |
| ② | PROIEKTUAREN **ESKAERARI ALTA** EMAN. |
| ③ | ESKABIDEAREN **ATAL GUZTIAK OSATU ETA** ETA **DOKUMENTUAK ERANTSI**. |
| ④ | ESKAERA **BIDALI**. |

## 1. IKASEKIN APLIKAZIOAN JARDUERARAKO SARBIDEA.

### 1. DIRUZ LAGUNGARRIA DEN JARDUERARA SARBIDEA ESKATU: EMEKIN–Laguntza eta Tutoretza (1. URRATSA).




### 2. EMAKUME EKINTZAILEAREN DATUAK EGUNERATU (2. URRATSA).



Horretarako, emakume ekintzaileak programan zerbitzuak ematen dituen entitate homologatu bat hautatu beharko du.

**(Ikus homologatutako entitateen zerrenda)**

## 3. PROIEKTUAREN ESKAERA.

## 1. PROIEKTUAREN ESKAERARI ALTA EMAN (3. URRATSA).







## 2. ESKABIDEAREN ATAL GUZTIAK OSATU ETA ETA DOKUMENTUAK ERANTSI (4. URRATSA).

**Entitate ekintzaileak** egin beharrekoa:

2.1.– Eskatutako informazioa bete:

– Eskatzailearen datuak, proiektuaren datuak eta partaideak (Talde sustatzailea eta entitate homologatua).

2.2.– Ondorengo dokumentuak erantsi:

1. Urteko administrazio eskaera.
2. Ardurapeko adierazpena.
3. 840 Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: Jardueren aitorpena.
4. 036 Zentsu Aitorpena.
5. Sozietate–enpresaren kasuan: enpresaren IFZ eta enpresa berriaren eskriturak.

## 3. ESKAERA BIDALI (5. URRATSA).

Eskaera bidali aurretik, mesedez egiaztatu eskatutako informazioa eta dokumentazio guztia bete eta erantsi duzula.

**Proiektuaren ESKAERAren izapidetzea, BIDALI aukera hautatuz egiten da.**



# ATALA II: PROIEKTUEN ZURIKETA – LAGUNTZA ETA TUTORETZA.

## 1. ZURIKETA EGITEKO JARRAITU BEHARREKO URRATSAK.

| | |
|---|---|
| ① | ZURE GAKOEKIN SARTU APLIKATIBOAN: *http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa* |
| ② | **"NIRE PROIEKTUAK"** AUKERATU.<br>**JARDUERA:** EMEKIN–LAGUNTZA ETA TUTORETZA.<br>**EGOERA:** ONARTUTA. |
| ③ | **EGIN KLIK:** "AUKERAK" eta aukeratu "PROIEKTUA IKUSI". |
| ④ | **AUKERATU:** "AMAIERAKO ZIURTAGIRIA". |
| ⑤ | ZURIKETAREN **ATAL GUZTIAK OSATU ETA** ETA **DOKUMENTUAK ERANTSI**. |
| ⑥ | ZURIKETA **BIDALI**. |

## 1. PROIEKTUAREN AMAIERAREN ZURIKETA.

**Zuriketa hori betetzeko, hautatutako entitate homologatuaren laguntza izango du emakume ekintzaileak.** Horretarako:

1. **(5. URRATSA)** Ikasekin aplikazioko **AMAIERAKO TXOSTENEAN** eskatutako informazioa beteko da:

-Amaierako ziurtagiriaren txostena.
-Partaideak:
- Talde ekintzailea.
- Entitate homologatua.
- Zerbitzua eman duen entitate homologatuko pertsonaren izen-abizenak.

**Honako dokumentu hauek erantsiko dira:**

- Dok–1: EGITASMOAREN AMAIERA EGIAZTATZEA.
- Dok–2: BESTELAKO LAGUNTZEN AITORPENA.
- Dok–3: Zerbitzuan emandako ORDUEN DESKARGUA: Emekin-Laguntza eta Tutoretza.

### 1. (6. URRATSA) Proiektuaren amaieraren zuriketa bidali.

Amaiera ziurtagiria bidali aurretik, mesedez egiaztatu eskatutako informazioa eta dokumentazio guztia bete eta erantsi duzula.

**Proiektuaren AMAIERA ZIURTAGIRIAren izapidetzea, <u>AMAIERAKO ZIURTAGIRIA BIDALI</u> aukera hautatuz egiten da.**







Proiektuaren **Fasea, Amaiera Ziurtagiria BIDALITA**ra aldatuko da.




## 2. EGITASMOAREN PUBLIZITATEA.

Pertsona onuradunek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzazioari publizitate egokia eman beharko dute, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzazio publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenen bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.